

Bezeroarekiko harremanak

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Hasteko, gure bezeroak erakartzeko egingo dugun lehenengo gauza, aurreko galderan aipatutako plana alde batera utzita (Arabako laguntza zentroei informazioa eman eta ongintzazko gala bat antolatu); kartelak zintzilikatuko ditugu Arabako kaleetan zehar, jendearen arreta erakartzeko. Kartela honako hau da:

ONA

HORTZ PROTESIAK

LAGUDENT

Irribarrrea, guztion eskubidea

Aho-osasun ona behar duzu, baina arazo ekonomikoak dituzu?
Elkarte honetan sartu eta behar duzun hortz-protesia dohainik jasoko duzu.

ZERBITZUAK

- Protesi osoak (ez-finkoak)
- Protesi partzialak (ez-finkoak)
- Isurketa ferulak
- Ferula periodontalak
- Masailezurra birkokatzeko ferulak

Informazio gehiagorako:

lagudent@gmail.com

Kokapena:

- Calle Jacinto Benavente
- Distrito Judimendi - Sta. Lucía
- Vitoria-Gasteiz, Álava

HORNITZAILEAK

noguera clínicadental

Vision

SALES

CLINICA BROCH DENTAL

DENTAL 22

dentium

pessarrodon

CLINICA DEL REY

CLINICA CUREA

DELSEGURA

CLINICA SEVILLA DENTAL

Odontología Solidaria

Bestalde, bezero berriak erakartzeko, uste dugu oso garrantzitsua dela hasierakoak kontsulten bidez mantentzea, tratamenduaren prozesua ikusteko.

Horretarako, gure webgunera zenbait pazienteren bideoak igotzea pentsatu dugu (haien baimenarekin), haien historia pertsonala kontatuz, gure taldearekin izandako esperientzia, eta, azkenik, protesiaren emaitza erakustea.

Bideoetan agertzen dena gure elkartearantzat positiboa izan dadin, beharrezkoa da pazienteen benetako iritzia jasotzea; hau da, gure helburua da erakustea gure zerbitzuek zer eragin erreal duten pertsonen bizitzan. Horrek, konfiantza sortzeaz gain, beste batzuk partekatutako esperientziekin identifikatzeko aukera ematen du.

Bezero berriak erakarri ondoren, funtsezkoa da haiei eustea eta haiekin dugun harremana haztea. Horretarako, bezeroarentzako arretaren ikuspegi bikaina ezarriko dugu, eta ziurtatuko dugu paziente bakoitza baloratua eta entzuna sentitzen dela.